

## ALKATEAREN PROBIDENTZIA

2024ko martxoaren 20ko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez argitara eman zen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2024ko dirulaguntzen deialdia. (EHAA 2024ko apirilaren 2a, asteartea).

Oñatiko Udalak 4 pertsona kontratatuko ditu diru-laguntza deialdi honen bitartez:

- 2 kale garbitzaile, 4 hilabetetarako, %100 jardunaldian.
- 2 administrari laguntzaile, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.

Deialdi honen esparruan burutuko diren kontratazioek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2024ko dirulaguntzen deialdiaren 2. artikuluko 4.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea.
- Oñatin erroldatuta egotea.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE lanposturako jarraian zehazten diren **ezinbesteko baldintzak** ezarri dira:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatua edo baliokidea.
- Euskara: B2 maila edo baliokidea izatea

Eta **baloratu beharreko baldintzei** dagokionez honako hauek izango dira:

- Administrari edo administrari laguntzaile lanetan esperientzia izatea. Balorazioa hurrenkera honetan egingo da: Administrazio publikoan administrari edo administrari laguntzaile lanetan eta ondoren sektore pribatuan.
- Lanposturako eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean dagokion titulua izatea, betiere lanpostuarekin lotutakoak bada.
- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza ikastaroak.
- IT txartelak (Access, Excel eta Word edo horien baliokideak).

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN dut:

1.- Enplegu Zerbitzu Publikoei eskatzea lan-kategoria eta baldintzak betetzen dituen hautagaiak aukeratzea.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

**2 administrari laguntzaile, Oñatiko Udaleko artxiboan eta euskaltegian jarduteko.**

Lan kontratu mota: Okupagarritasuna eta laneratzea hobetzeko kontratua.  
Hileko soldata gordina: C2 azpitaldeari atxikitutako lanpostuei dagokiena.

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Tituluak (gehienez 2 puntu).

Lanpostuan eskatzen den titulazio ofizialaz gain maila goragoko titulu ofiziala izanez gero 2 puntu. Batxilerra edota Erdi Mailako Lanbide Heziketa titulua edo baliokidea izatea.

3.2 Prestakuntza osagarria eta ofimatika (gehienez 5 puntu).

- Lanpostuarekin zerikusia daukaten ikastaroak; 0,05 puntu ordu bakoitzeko.
- IT Txartelak: Access, Excel eta Word edo horien baliokideak diren ziurtagiriak.
  - Oinarrizko maila: 0,5 puntu.
  - Maila aurreratua: 1,0 puntu.

3.3 Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Administrazio publikoan, C1 edo C2 azpitaldeko lanpostuetan: 0,2 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- Sektore pribatuan administrari lanetan: 0,05 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

Administrazio publikoan izandako lan esperientzia lan zerbitzuen ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko da.

Sektore pribatuan izandako lan esperientzia, lan-bizitzari buruzko txostenaren eta lan kontratuaren bidez egiaztatu beharko da.

4. Epaimahaia honela osatuko da:

Ernesto Murgiondo Villar – Euskaltegiko zuzendaria.  
Izar Salaberri Iñarra – Artxibozain dokumentalista  
Unai Kortabarria Errasti, Sozioekonomia saileko teknikaria.

Oñatin, 2024ko irailaren 16an.

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Enplegu plana 2024. Alkatearen probidentzia - Administrari laguntzailea